

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Gobernuak Higiezin 2009-2011 Plana zabaltzea onartu du

2012. urtera arte egingo da, eta 83.000 euro baino gehiago aurreztuko da alokairuetan

Lunes, 20 de junio de 2011

Nafarroako Gobernuak erabaki bat onartu du gaurko bilkuran eta, haren bidez, Administrazio Higienezin-Bulegoen 2009-2011 Jarduera Planari eranskin bat egitea onartu da; era horretan, haren iraupena 2012ra arte zabalduko da jarduera berri gehiagorekin eta administrazio-unitateak lekualdatuz; hala, egungo egoerarekin alderatuz, alokairuetan 83.785 euro aurreztuko dela kalkulatzen da.

Zabaltze horri esker, Higiezin 2009-2011 Planean jada hautemandako beharren gainean jardun ahal izango da, hura abian jarri zen unean alternatibarik planteatu ezin zitekeena. Horrek orain hutsik dauden zenbait lokal jabetzan erabiltzea dakar, alokairuen alorrean aurrezte ekonomikoa izanik. Gainera, erreserban azalera gehiago lortzea dakar.

Higiezin 2009-2011 Planaren balantzea

Higiezin Arloko 2009-2011 Jarduera Plana 2009ko ekainean onartu zen administrazio-bulegoetarako higiezin erabilera eraginkorra bermatzeko xedez; bai eta hura optimizatzeko eta kostuak aurrezteko politika bat gauzatzeko, alokairuen ordeztu jabetzako espazioak erabiliz. Bertan jasotako jarduera gehienak bukatuta daude, hiru izan ezik (haietako bi egikaritzen hasi dira); horrek 2012an ia 3 milioi euro aurrezte ekarriko du. 2013. urtetik aurrera, zifra horri plana zabaltzearekin aurreikusitako 83.785 euro erantsi beharko zaio; beraz, guztira, 3.042.613 euro aurreztuko da.

Higiezin Planaren egikaritzeak Iruñean Gonzalez Tablasen eraikina eraikitzea barnean hartzen zuen, bai eta Iruñeko Cortes de Navarra kalean Ekonomia eta Ogasun Departamentuko egoitza zabaltzea ere. Osasunbidea eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bulegoak Iruñeko Tutera kaleko bulegoetara lekuz aldatzea geratzen da; PFEZ eta Ondarearen Kanpainako zerbitzua, Zergadunari Lagundu eta Informazioa emateko zerbitzua eta Nafarroako Aldizkari Ofiziala Esquiroz kalera lekuz aldatzea eta baita



Iruñeko Erregistro Zibileko bulegoak, Sancho el Fuerte etorbideko 8. zenbakian (Foru Ogasuneko lehengo bulegoa)

Immigraziorako Bulegoa ere.

Higiezin 2009-2011 Planak eta orain onartutako eranskinak honako helburu hauek ditu: alokairuak aurrezteaz gain, ondasunen erabilpena arrazionalizatu eta optimizatzea behin betiko finkatzeak bilatuz eta baliabide propioak baliatuz; irudi instituzional bateratua ematea; azpiegitura modernoak sortu eta mantentzea, oztopo arkitektonikoak kenduz eta lan-arriskuen prebentzioarekin irisgarritasuna bermatuz. Eta espazioak behar berriei egokitzea, bai eta eraikin nahiz instalazioen eraginkortasun energetikoa hobetzea ere.